

JURDANA URIARTE LEJARRAGA andreak, Bermeoko Udaleko behin-behineko idazkariak,

**ZIURTATU DOT:**

2017ko azaroaren 20an **Tokiko Gobernu Batzarrak** erabagi hau agindu dauela:

**10.- ERAIKIN PUBLIKOETAKO GARBIKETA ZERBITZUA ESLEITZEA.**

**Xedea**

Eraikin publikoetako garbiketa zerbitzua esleitzea.

**Aurrekariak**

Lehenengoa: Zerbitzu Saileko teknikariak 2017ko abuztuaren 10eko txostenean adierazitakoaren arabera, eraikin publikoetako garbiketa zerbitzua esleitu behar da.

Bigarrena: 2017ko abuztuaren 21ean, 1056. zenbakidun Alkatetze Dekretuaren bidez, Bermeoko eraikin publikoak garbitzeko zerbitzua kontratatzeko espedientea, gastua eta baldintza agiriak onartu eta deialdia zabaldu zen.

Hirugarrena: Lizitazioa prozedura irekiz eta izapidetze urgentez egin da.

Laugarrena: Lizitazio honetara enpresa bik aurkeztu dabez euren eskaintzak:

- Clyma Grup, S.L.
- UNI2 Servicios integrales, S.A.

**Argudioak**

Lehenengoa: Administrazio baldintza orrietako irizpideak jarraituz, lizitazio prozesua egin da.

Bigarrena: Prozesu honen ondorioz, Zerbitzu Saileko teknikariak egindako txostenean proposatutakoa ontzat hartu dau kontratazio mahaiak. Holan ba, kontratazio mahaiak proposatu dau "Bermeoko eraikin publikoak garbitzeko zerbitzua" esleitzeko UNI2 Servicios integrales, S.A. enpreseari beharrezko errekerimendua bidaltzea eta Kontratazio Organoari haren aldeko esleipen proposamena bideratzea.

Hirugarrena: Errekerimenduan eskatutako dokumentazioa aurkeztu da.



Laugarrena: Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateratua onartzen dauen azaroaren 14ko 3/2011 EDLren 109., 110., 160. eta 161. artikulua.

Bosgarrena: eta testu bereko II. Xedapen gehigarria.

### **Erabagia**

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honako hau ERABAGI DAU:

LEHENENGOA: 166.601,61€-ko gastua baimentzea Bermeoko eraikin publikoak garbitzeko zerbitzua kontratatzeko eta indarrean dagoan udal aurrekontuaren jagoko(za)n partidan/partidetan zorduntzea.

BIGARRENA: Bermeoko eraikin publikoak garbitzeko zerbitzua UNI2 Servicios integrales, S.A. enpreari esleitzea 137.687,28 eurotan (BEZ kanpo). BEZari jagokon zenbatekoa 28.914,33 €-koa da (Guztira: 166.601,61€).

HIRUGARRENA: Interesdunari, Zerbitzu Sailari eta Kontu-hartzaitzari erabagi honen barri emotea.

LAUGARRENA: Hurrengo Osoko Bilkuran erabagi honen barri emotea.

Eta honela izan daiten eta ondorio egokiak eragin daizan, ziurtagiri hau idazten dot, erabagia agertzen dan akta behin betiko onespeneren menpean dagoela ohartarazota (Toki Erakunde Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoa onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 EDaren 206. artikulua arabera), Idurre Bideguren Gabantxo alkate andrearen aginduz eta onetsiaz, Bermeon, 2017ko azaroaren 21ean.

ONETSIA  
ALKATEA

Idurre Bideguren Gabantxo



IDAZKARIA

Jurdana Uriarte Lejarraga



BERMEOKO UDALA  
IDAZKARITZA

